ERREPORTAJEA DROGEN KONTSUMO EGOKIAREN ALDEKO KANPAINA ELGOIBARREN • GEHIGARRIA

KILIBARREN KIROLA OLEJ KORNEEV ERRUSIARRA, NAZIOARTEKO X. XAKE TXAPELKETAKO IRABAZLEA

# BARREN

ASTEKARIA

2000ko abenduaren 15a/VIII. urtea/344. zkia
ELGOIBARKO ASTEKARIA



HARATEGIA-URDAITEGIA

BASERRIKO
ZIARDA
Errosarin, 10 • Tel. 943 740 554








GURE BASE RRIKO
EUSKO LABELDUN
TXAHALAK
PRODUKTU NATURALAK

Eusko Label
KALITATEA

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
EUSKO LABEL



ZEZEN-BIDE
AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak






San Frantzisko, 43-1. – Tel: 943 74 27 20 — ELGOIBAR
Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik). Tel: 943 20 34 45 — EIBA R



## Durangora begira

Joan den asteburu luzeak biharamon goxoa laga digu. Abenduko zubiak Durangora eraman gaitu aurten ere, liburu, egutegi eta diskaren bat erosi, lagunak ikusi, zerbait hartu... Urterokoa izanagatik ere beti zoragarri. Asteon jakin ditugun Euskal Liburu eta Disko Azokako emaitzek errekor guztiak hautsi dituzte: ia 300 milioi pezetako salmentak eta 250.000 bisitari. Berri onak azken aldian horren jipoitua izaten ari den geure hizkuntzarentzat.

Durangon ikusi da milaka lagunen babesa duela euskal kulturak, eta badirudi hoiTek urduri jartzen dituela hatzuk. Urduritasun horretatik etorriko lirateke Nafarroan asteon onartutako dekretua (administrazioan euskararen erabilera murrizten duena), hezkuntza sistema kontrolatu nahi izatea, AEKri egindako erasoa eta abar. Euskara edota euskal kultura indartzeko edozein ekimen zapuztu nahi dutela ernaten du. Zergatik? Ba haiek batzen gaituztelako, haiek egiten gaituztelako herri.

Durangoko Azokan kolore guztietako jendea hatera ikusteak itxaropen argitxo bat dakarkigu garai ilunotan. Geure kulturak eta hizkuntzak batzen gaitu. Egin dezagun aurrera bide horretatik, inora ez daramatenak haztertuta.

Montse Arregi



# Intseguritatea

Gatirk0a111 ez dut ezer berririk esango, baina guztiok maila batean edo bestean pairatzen dugun sentipen batez gogoeta egin nahi dut; intseguritateaz. Igande iluntze honetan Euskal Herriko pinudiak ere zalantzan jartzen dituen haizeak ni neu ere dudatan jarri nau, eta idazten hasi naizen hitz bakoitzeko... galdera ikur bat, Inspirazioa edo zerbait, ganora piska batekin idazteko behar dena, zapatu gabean galdu dut taberna txokoren hatean.

Halakoetan, gu geu kanpoak definitzen gaitu: garena eta izan nahi duguna gugandik at dagoenaren menpe dago, eta lurrera erortzen ari den lumaren norabidea bezain galduta sentitzen dugu gure bidea, inoiz helbururik izan ez duen haizearen menpe.

Kontu herari mila itzulipurdi eta ilean milaka kiribil zalantzetan galdu eta ezer argirik ez ateratzeko. Badira inoiz argia ezagutuko ez duten galderak eta horien lausotasunean bizitzera kondenaturik gaude.

Amaia Lariz

ErreportAjea ........................................ -91
motzak ........................................ io
gehigarria ........................................ 13
kiROlAk ........................................ 20
aGenda ........................................ 24

2000-XII-15

## EUSKAL HERRIA AURRERA!

Espainiar estatuak Euskal Herria desagertzera daraman estrategia jarri du mahai gainean. Historikoki mantendu duen jarrera bera da, baina orain muturreraino eramatea erabaki dute espainiar agintariek, modurik desesperatuenean. Zergatik? Ohartu direlako Espainia proiektua deitzen dutena krisi latz batean sartuta dagoela, ez direla gai izan urte hauetan guztietan Euskal Herriaren askatasunaren aldeko indarrak suntsitu eta herri honen etorkizun librea ezabatzeko.

Mahai Nazionalaren atxiloketa, EGINen itxiera, XAKIren inguruko operazioa, EKINen aurkakoa, Joxemi Zumalabe, Bai Euskal Herriari platafoima, AEK...eta abar luze bat ez dira eraso isolatuak, herri honen izaera eta nortasuna adierazten duten ikur oro ezabatzeko helburuz eginak dira, irakaskuntza alorra dela, Humanitateen dekretua lekttko, euskara, ikastolak...Testuinguru honetan kokatzen dugu AEKren aurkako azken erasoa.

Eta estrategia basati honek bi erantzun mota eskatzen dizkigu: bata, dagoeneko martxan dugun prozesu burujabea, Euskal. Herria bere osoan harturik eszenatoki demokratiko batera eramatea helburu duena, indar osoz aurrera eramatea, honetxek kezkatu eta beldurtzen dituelako. Eta bigarrena, estatu espainiarrarengandik jasotzen ditugun eraso guztiei tarnainako erantzunak mahai gainean jartzea, eragile politiko, sindikal eta sozialak enplazatuz, behar den erantzukizun eta arduraz joka dezagun eta dezaten.

Ez dira epelkerietarako garaiak, ezta geldirik geratzekoak ere. Euskal Herria herri gisa defendatu eta etorkizuneko orube eta zutoinak jasotz.eko ordua heldu zaigu, gure etorkizuna inposizio eta muga guztien gainetik eraildtzekoa. Eta hau, gu guztion borondateasen arabera dago. Guztion esku dago Iibre eta bakean bizi nahi duen herri baten alde lan egiteko premia. Ildo honetan, larunbatean, 16an, Bilbon euskararen aldeko erakunde desberdinek deitutako "GU GEURE ESKOLA" lemapeko manifestaldira dei egin nahi diegu elgoibartar guztiei.

Elgoibarko Euskal Herritarrok

## BEHIN ETA BERRIZ AEK (EUSKARA) ESTUTU NAHIAN

Duela pare bat aste Garzonek AEK-ko 19 kide inputatu zituen eta horretarako ondorengo arrazoiak erabili zituen: ETAri laguntzea, ETAko kide izatea eta beste kontu batzuk. Berriro ere hemen dauzkagu euskararen aurkako ekimenak. Berriro ere hemen daukagu berri bera, kontu bera, baina kontu hauek ondorio txarrak ekaniko dituzte, izan ere, gure ustez AEK-k laguntza handia ematen digu euskara ikasi nahi dugunoi, AEK-k euskara maite duelako eta euskara maitatzen irakasten digulako. Baina argi dago badagoela euskara ikastearen aurka lan egiten duen jendea eta horrek kalte handiak ekarriko dizkio gure herriari.

Guk nahi duguna zera da: euskara ikasi eta erabili herri honetan, hau da, gure herrian, baina eskubidea kentzen ari dira edo hala somatzen dugu, behintzat, herriari bere hizkuntza kentzea bere historia lapurtzea baita. Hain gauza larriak gertatzen ari direla-eta, ezin izan gara ezer esan gabe gelditu, izan ere AEKri esker ikasi dugu gure hizkuntza balore handikoa dela eta bestalde, AEK Euskaltegiko irakasleei (Amaia, Izaskun, Alfonso) gure elkartasuna adierazi nahi diegu.

AEK Euskaltegiko mintza taldeko ikasleak

# Urruzunoren
## begi izkutua



Mutila entsaladillazko bokadillo bat jaten ari zen. Bitartean neska musukatzen zuen, eta gero, ahoa garbitzen zuen paperezko serbilleta batekin. Neskak irrifarre egin zion, disfrutatu egiten baitzuen; eskuak dardarka zituen, ez dakit musukatzeko ezinbesteko gogoak zituelako, edo soilik poza sentitzen zuelako musuak jasotzean. Nik begiratu egiten nituela konturatzean, mutilak berean jarraitu zuen, eta neska aurpegia izkutatzen saiatu zen.

Bapatean, konpartitzeko momentua heldu zela nabarituz, neskak mutilaren eskutik bokadiloa jaso zuen eta, entsaladillaren saltsatik mingaina pasatzen hasi zen, musu luze batetaz tratatuko bailitzan.

Beraiei buruz idazten ari nintzela esan nienean, mutilak irrifarre egin zuen, eta neskak txispak botatzeari ekin zion.

Azkenean, neskak ahoa garbitu zuen, serbiletarekin noski, eta trago luze bat hartu ondoren, elkarri lepoa ukitu eta gero, berak, mutilak, muxu goxo eta liluragarri bat eman zion ezpainetan.

Joseba **Esnaola**
URRUZUNO israxrun TALDEKOA

ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
. 943 74 41 12
Publizitatea:
r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila.
barren@topagunea..com
Hefbide Inforrnatikoa:
wwvv.ihardun.convbarren
ADOITAR41TAILEA

LAGUNT7JULEA Elgoibarko Udala ZUENDAIDA Eli Aizguru KAZETARIAK Irab Agareazalclegi, Asier Orbea PustrzareA Andoitz Agirregomezkorta MAKETATZALEA Bea Ansola ADMINISTRAZIDA Olatz Arriola GERENTMA Rate Alvarez. M. Angeles Ortuoste. KOLABORATZAILEAN Amaia Lartz, Unat Argarate, Eguzkiiie Aranberri, Lorea Perez de Albeniz, Aitor Zabalela, Leire Urkid, Olga Unzita, Montse Arregi. JuanIto Gorostiza, Amaia Urzelai, lon Gurrulxaga, Ainhoa Andonegi. Kokoe K.E. ebt Umazuno LT.. AZALEKO ESALDIA Golzon Gerateren libunalk INPFULIATEMA Gertu Koop. E. TIRAIM 4.000 ato LEGE GORDAILUA 55-1.038/92 ISSN 1139.1855

E1GOIBAKKO IZARRA
1111.7171 21KART.A

*Elgoibarko Utlalak, Eusko Jaurlaritzaka Kultura Sailak eta* F0174 *Aldundiak diruz lattundutako aldizkaria.*

hpallosAr

GOI TI
GRUPO DIMOBAT

2000-XII-15



• Egunero umearekin `Usua' ondoko parkean egoten den emakume batek honako kexa hau helarazi digu. "Haur asko ibili ohi da bertan jolasean eta zulo dexente dago, paseoa ere arriskutsua dago, harriak falta direlako".

• Santa Ana kaleko bizilagun batek deitu digu bertan gabonetako argirik edota pinurik ipintzen ez dutelako kexatzeko: "Kale hau herrirako sarrera izanik, egokia iruditzen zait gabonetarako prestatzea. Bi pinu egoki daude argiak jartzeko. Herriaren sarreretako bat izateko nahiko triste dago".

# LONDRES



**Marta San Martin** pasa den udazkenean egon zen azkenekoz Londresen. Ikaslea zenean 2 urte eta erdi pasatxo egin zituen bertako familia batean. "Harreman oso ona sortu zen gure artean eta familiakoa banintz moduan tratatzen naute". Marta sarritan itzuli da Londresera, "beraiek ere etorri izan dira Elgoibarrera, baina errazagoa izaten da ni harantz joatea, ni bakarra bainaiz eta beraiek, berriz, lau". Londresek dibertimendurako duen eskaintza amaigabea aipatu digu Martak, "astelehena izan arren gauza mordo bat egin ditzakezu". Ingelesak izakeraz oso itxiak direla ere aipatu digu, "itxiak dira, baina ez atzerritarrekin bakarrik, baita beraien artean ere. Asko bakarrik bizi dira eta harritu egiten dira hemen koadrilakoekin kalera irtetzen garela entzutean". Martari asko gustatzen zaio bidaiatzea, "jende desberdina ezagutu eta ezezagunak zaizkidan gauzak ezagutzea gustatzen Dena den, udan erlaxatzeko bidaiak egiten dituela aitortu digu, "uda lanetik atseden hartzeko aprobetxatzen dut. Aurten, adibidez, Costa Bravan izan nintzen, Santa Susana henian, eta oso ondo pasa nuen".

**Atipb.**

V AJES
BI1.3RO
**BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA**
Foruen enparantza, 3• Tei: 943 74 39 12

Barrak, Birrak eta Barreak



# Arrisku GutxiagQ kontsumitu

***Gaur egun kontsumo gizartean bizi garela esanda ez dugu aurkikuntza berririk egiten, ezta Gabonak eta kontsumismoa estuki toturik daudela aipatzean ere. Gabonak ingurafu orduko efxe gehienetako ekonomiak kinka larrian izaten dira; oparick, urte sasoi honetan bakarrik jaten difugun jaki goxo eta Igarestiak'... Baina dirudienez beste alor batzutan ere kontsumismoak nabarmen egiten du gora. Drogen kontsumoaz ari gara, Gabonak baitira droga gehien kontsumitzen den garaietako bat. Datu hori kontutan harturik Udaleko Drogomenpekotasun Prebentzio Sailak "Arrisku Gubciago Kontsumitu" izeneko kanpaina jarriko du martxan gaurtik (abenduak 15) aurrera. Kati Pons Prebentzioko teknikariak azaldu dizkigu kanpaina honen nondik norakoak.***



Kanpaina hau droga hartzaileei zuzenduta dago. Oraingoan ez diegu drogarik ez hartzeko esaten, kanpainaren leloak dion moduan (`Arrisku Gutxiago Kontsumitu") drogak hartzearen arriskuaz ohartarazi baizik. Kontsumo errespontsablea egitera bultzatu nahi ditugu. Izan ere, lehen haino informazio gehiago dago eskura, baina oraindik ere gauza asko ez daude guztiz argi", azaldu digu Kati Pons Udaleko Drogomenpekotasun Prehentziorako Saileko Teknikariak,

## INFORMAZIOA DA GAKOA

Hain zuzen ere, droga bakoitzaren ezaugarriak, arriskuak eta ondorioak agertzen dituen informazioa banatzea da kanpaina honen helburu nagusia. Informazio hau Ekimen Elkarteak prestatu dituen txarteltxo batzutan agertzen da, Sustantzia eta Buritko Osasunaren Ikerketan dihardUen elkartea da Ekimen, eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin argitaratu du materiale hau. Kati Ponsen hitzetan, "gure asmoa ez zen informazio hau besterik gabe jendartean banatzea. Gazteekin erlazio zuzena duten pertsonen kolaborazioa nahi genuen, hau da, dendak, tabernak... orokorrean jende gaztea ibiltzen den tokietako jendearen laguntza. Ondoren, leku hauetan lagako dugu informazioa bertara hurbiltzen den edonorentzat eskuragarri". Honez gain, Errotatxok eta Gaztetxeak ere hartuko dute parte kanpainan eta abenduaren 23an, larunbatean, "Fellini" antzerki taldeak drogen gaiarekin zerikusia duen emanaldia eskainiko du Herriko Antzokian gaueko 24:00etan. Aurrez Madala inguruko tabernetatik pasako dira ikuskizunaren berri emateko eta jendea piska bat animatzeko.

"Drogen ezaugarriak, arriskuak eta ondorioak hel araztea da kanpainaren helburua

## NORI DAGO ZUZENDUTA?

Drogak kontsumitzen dituenean arriskuen berri ez dakien jendeari eta neurriak hartzen ez dituenari zuzenduta dago kanpaina hau. Baita edozein egoeratan dagoen drogaren kontsunioa onartzen dutenentzat ere. Baina,

kanpaina hau. batez ere, drogak kontsumitzen dituzten 18 urtetik gorako pertsonei zuzenduta dagoela azpimarratu digu Kati Ponsek, "drogen mundua ezagutzen ez duen jende gazteari horrelako informazioa emanez gero, drogak kontsumitzera bultzatzen ditugula pentsa dezake norbaitek. Horixe da hain zuzen ere ebitatu nahi duguna. Droga kontsumitzaileak gure informazioa irakurri ahala konturatuko dira zertaz ari garen¯.

## DROGA GUZTIEI BURUZKO IN FORMAZIOA

Haxixa, kokaina, alkohola, LSDA, heroina, kafeina, ketamina, onddoak, speeda, estasia, lasaigarriak eta tabakoa dira informazio txarteltxoetan ageri diren drogak. Hauez gain, droga nahasketen ondorioak eta larrialdien aurrean zer egin dezakegun azaltzen duten txarteltxoak daude. Gabonak moduko jai egunak hurhil direnean jendea edozer erosteko prest izaten da. Droga saltzaileak erosleen irrikaz aprohetxatzen dira eta sustantzien kalitatea bigarren maila batean geratzen da. Arrisku hori eta beste hatzuk gutxitzeko nahia dute gaurtik aurrera Elgoibarko zenbait taberna eta komertztotan eskuragarri izango diren txarteltxoek. Guztira 15 txartel dira. Hiru aukeratu ditugu adibide gisa:




### ► ZER EGIN DEZAKEGU

**Bero** kolpe baten aurrean (Estasi eta diskoteketako nahasketak): Lasaitu eta eraman ezazu leku fresko batera, hoztu ezazu nolabait (bizkarrean izotza jarriz adib.). Tenperatura jaisten zaionean, jantzi arropak.

Atake edo espasmoen aurrean (Kokaina, speeda, nahasketak, etab.): Lagun iezaiozu minik har ez dezan; ahotik bitsa bota dezake; odolarekin bada, agian mihia hozkatu duelako da. Ez ezazu buruz gora etzan arazi, airea blokeatu eta bere okadan ito baitaiteke.

Gaindosi baten aurrean: Ez dezala konortea galdu, ibil eta hitz eginarazi. Ez dezala lo hartu. Ur epela eman trago txlkitan baina ez kafe edo alkoholik. Deitu anbulantzia bati.

Norbait konorterik gabe badago: Deitu anbulantzia bati eta esan zer gertatu den. Arnasik hartzen ez badu, egin iezaiozu ahoz ahokoa. Arropa jantziezaiozu eta ez ezazu bakarrik laga.




### DROGAK

**Droga** guztiek, nahiz legezkoak edo Iegezkanpokoak izan, efektu sekundarioak dituzte.

**Ezin** duzu zehatz mehatz jakin, zer gertatuko zaizun drogak kontsumitzen badituzu. Arriskua, gauza askoren menpe dago: zenbat hartu duzun, zenbateko maiztasunez, merkatuan eginiko manipulazioa, egoerak, nahasketak, nola kontsumitu duzun, gorputzaren pisuaren eta dosiaren arteko erlazioa, lehendik beste drogaren bat hartu duzun edo ez, sexua, aurretik arazo fisiko edo mentalik badagoen, zein espektatiba dauden, etab.

### HAXIXA




**Dosi** txikiekin asko hitz egiten duzu, barre algarak eragiten dizkizu eta soinu, kolore, gustu, etab.etarako sentsibilitate handiagoa izango duzu. Ondoren, nekea ager daiteke. Sexu grina handi dezake.

**Dosi** handiagoekin, gauzak ahazten zaizkizu, pentsamendu nahasiak izan ditzakezu, eta denbora kontrolatzeko zailtasunak izango dituzu.

Azterketetan edo kontzentrazio handia eskatzen duten egoeretan ez da komenigarria kontsumitzea. Luzarorako oroimenean ere eragin dezake.

Alkoholarekin nahasten bada, eragin depresore eta desorientatzaileak handitzen dira.

Zirkulazioan dabilen haxixa, gebienetan, manipulatua egoten da, era guztietako sustantziekin nahastua.

'Behi ero'en kasua dela-eta...

# BEHI OKELA EROSTEKO JOERA ALDATU AL DA ELGOIBARREN?



### ANGEL ARRIZABALAGA

**36 urte, harakina**

Gurean ez. Gainera, labela dala-ta esango nuke zerbait gehiago saltzen dugula. Hala ere, zurrumurrua generala da eta jendeak okela nondik datorren galdetzen du.

### MAITE ARRIZABALAGA

**35 urte, harakina**

Gure harategian ez dugu igarri kontsumoaren beherakadarik. Labeleko haragia daukagu eta jendeak badaki okela hori hemen hazitakoa dela eta segurtasunez erosten du.





### JON ULAZIA

**38 urte, harakina**

Bai. Behi okela oso gutxi saltzen zan lehen, eta oin jendiak eskatu ere ez dau eitxen. Bildurra nabarmena da.

### HABIER GOROSTIZA

**60 urte, pelukeroa**

Neuk berdin segitxu dot behi okelia jaten eta ez dot inungo prekupaziorik euki. Konfiantzia dakagu hemengo karnizeruekin eta oin artian gai honek ez ditx bildurrik eman.





### ISABEL MARTIN

**56 urte, etxekoandrea**

Nik ez dut okela askorik erosten eta `behi ero'en gaia dela-eta ez ditut ohiturak aldatu. behar dudanean erosi eta kitto. Ez dut uste harakinek engainatuko gaituztenik.

### MARINA L1NARES

**65 urte, etxekoandrea**

Bai, jendeak beldurra dauka eta ohiturak aldatzen ditu. Behi okela jan arren ez dugu lehen bezala konfidantza osoz erosten.




- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN %1 OEKO BEHERAPENA

94/ ——Utt~ OlieZU k":104 16 uiteettelept. 1

umETA K ~MA

Tel: 943 74 10 11

# Fall...k

## TRIKITIXA, SARDANAK, JOTAK eta RUNBAK



# KONTZERTUA



## TAPIA eta LETURIA laukotea

**JOSEBA TAPIA** - trikia eta ahotsa
**XA13IER LETURIA** - panderoa eta ahotsa
**ARKAITZ MINER** - bibolina eta mandolia
**JESUS ARANBURU** - pianoa

## POMADA talde kataluniarra

**CARLES BELDA** - soinu txikia eta ahotsa
**HELENA CASAS** - panderoa eta ahotsa

## GAUR, OSTIRALA 15
## gaueko 22:30ean

**Antolatzaileak:** Kultura Saila
Euskara Zerbitzua

# Herriko Antzakinn

## PSE-EEk eskailera mekanikoak jartzeko proposamena egin dio alkateari

Gillermo Garate alkateari bidalitako idatzi baten bidez J. Ovidio Campello eta Fernando Suarez PSE-EEko zinegotziek Elgoibarren eskailera mekanikoak jartzeko proposamena egin dute. Zinegotziok 2001 urteko aurrekontuak egiteko orduan zati bat San Roke eta Urasandi auzoetan eskailera mekanikoak egiteko erabiltzeko eskatu diote alkateari.

## 3 lapurreta salatu dituzte Udaltzaingoan

Azken asteotan herrian lapurretak izan direla jakinda, Udaltzaingora jo dugu eta bertako buru Jabier Otlederrak adierazi digunez, beraiek hiru salaketa jaso dituzte. Bi San Roke inguruan izan dira eta hirugarrena, Urasandin. Lapurrak tarjetaren sistema erabiliz eta atea bortxatuz sartu dira. Bi etxebizitzatan balore handiko gauzak eraman omen dituzte, eta hirugarrenean etxeko jabea barruan zenez, ez dute ezer ostu.

# Herritarrentzako informazio bulegoa jarri du martxan Udalak

### Herritarren zalantzak argitu eta proposamenak jasoko dituzte

Elgoibartarrei informazioa emateko eta beraien zalantzak argitzeko bulegoa jarri du martxan Udalak. Hasieran, goiz eta arratsaldez herritarren kexak eta proposamenak jasoko dituzte Udaltzaingoak udaletxe azpian duen bulegoan eta baita Udaleko sail bakoitzari dagokion informazioa eman ere.



*Oblko dokumentazion informazio bulegoan einatea da asmoa.*

Udaleko arduradunen asmoa aurrerantzean ohikoak diren dokumentuak bertan ematea da. Hau da, errolda-ziurtagiriak, obretarako baimenak... zuzenean eskatu eta zain egon gabe egunean bertan emango zaio eskatzen duenari, baina oraindik bulegoan azpiegitura informatikoa egin behar dute.

### Goiz eta arratsaldez irekita

Hirugarren pausoa beste agiri batzuk ematea litzateke. Dena den, herritarrek kontutan hartu behar dute bulegoan ez direla arazoak berehala konponduko. Elgoibartarren zalantzak jaso eta Udalean dagokion saileko arduradunari aditzera emango diete. Ondoren, arazo hori konpontzeko modurik balego herritarren eskaria beteko litzateke.

Bulegoa goizez 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara egongo da irekita eta edozein herritar joan daiteke bertara.

ARANBURU
BITXIDENDA

*Gabonetako apariak aukeratzerakoan, gogoan izan, aurten ere URREZKO BI ERLOJU zozketatuko ditugula bezeroen artean.*

**BIODEPILAZIO HALAWA METODOA**

**BARIZE, ARMIARMA BASKULAR, ILDO, DERMATITIS, PSORIASIS, ZELULITIS, HAURDUNALDI, LODITASUN, ETB. KASUETARAKO BEREZIKI GOMENDATUA**

***Zure erosotasunerako etxez-etxeko zerbitzua ere eskaintzen dugu.***

**EGUNERO**
**943 744 669** telefonoan

**OSTEGUNETAN KONTSULTA Surya Belardendan**



## Kalitatearen Euskal Fundazioak Izilarrezko Qr saria eman dio Gestio Eskolari

Orain dela hilabete eskas IMHk eskuratu bezalaxe, Gestio Eskolak ere `zilaffezko' Q saria lortu du Kalitatearen Euskal Fundazioaren eskutik. Biek hala biek datorren abenduaren 19an jasoko dute saria Donostiako Kursaal Aretoan. Kalitateak hezkuntzan duen garrantzia ikusita EFQM gestio eredu europara erabiltzen hasi ziren, hoffetarako lehen pausoa ikastetxeko ekintzak eta emaitzak autoebaluatzea izan zelarik. Sari hau eskuratzeko ikastetxeak aurkeztu duen memoria euskaraz idatzi dute osorik, eta horretarako ezinbestekoa izan da Oihana Arrieta, Gestio Eskolako ikasle gaztearen lana. Egun, Euskal Herriko hogei enpresa eta erakunde baino ez dira 'zilaffezko Q' sariaren jabe.

## Jesus Mari Gerenabarrena elgoihaptappak irabazi du Debabarreneko 111 Ezti Lehiaketa



Joan den abenduaren 9an, Mendaroko Kontzesio Azokan egin zen Debabarreneko III. Ezti Lehiaketa. Hamar eztigile inguruk hartu zuten parte, eta eztirik onena Jesus Gerenabarrena elgoibartarrarena zela erabaki zuten epaimahaiko hiru lagunek. Aurkezpena ezezik, eztiaren hezetasuna, usaina eta zaporea ere hartu zituzten kontutan. Jesusek 15,000 pezetako sariaz gain, apirilean Usurbilen egingo den Gipuzkoako Ezti Lehiaketako finalerako txartela ere eskuratu zuen.

## Arrakastatsua izan zen Kiroklegiko haurren jaialdia



Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak, Kultura Sailak eta Udal Kirol Patronamak haurrentzako jaialdia antolatu zuen abenduaren 3rako. Domeka arratsaldean haur eta guraso asko hurbildu zen Kiroldegira eta Atxutxiamaikako arduradun Eli Morenok esan digunez, "sekulako arrakasta izan zuen jaiak eta bildu zen jendetza ikaragatTia ikusita antolatzaileak oso pozik gaude". Jaialdian karetak, hankapaloak, karaokea, 'EnTedos' jolasa... izan ziren eta bertaratutakoek aurpegia margotzeko aukera izan zuten. Bestalde, Atxutxiamaikak Gabonetarako ere antolatu ditu hainbat ekintza, udaleku irekiak eta tailerrak, hain zuzen ere. Txikienentzat pailazoak, 'Txikiguai'ra irteera eta eskulanak izango dira eta gaztetxoek hankapaloak eta maskarak egingo dituzte.

## Euskai presoak etxerallearen aldeko harauraldia Gabonetan

Amnistiaren Aldeko Batzordeak gabon jaiak direla-eta euskal presoen etxeratzea eskatzeko barauraldiak egingo ditu herri guztietan abenduaren 26tik 30era. Elgoibarren ere ekintza honekin bat egiteko asmoa dute eta parte hartzeko prest daudenak datorren astelehenean, hilaren 18an, Kimetz elkartean bilduko dira iluntzeko 20:OOetan. Bertan egitarauari eta baliabideei buruz hitz egingo dute. Barauraldia egin ez arren laguntzeko prest daudenak ere azal daitezke bilerara edo telefonoz dei dezakete Kimetz elkartera.

## Batasuna prozesuko txostenen eztabaita egingo da Elgoibarren abendutik otsailera bitartean

Euskal Herriko Ezkertiarren Batasuna prozesuko txostenak aurkeztu ondoren, Elgoibarren lehen batzarra datorren astelehenean, hilaren 18an egingo da arratsaldeko 19:30ean. Otsailaren 4ra bitartean txostenen eztabaida egingo da eta amaieran bozketa bidez oinarrizko bi txostenak aukeratuko dira. Bilera 'Erailci nahi dugun Herritarren Batasuna. Erakunde berriaren nortasun ikurrak' izenburupean egingo da. Talde eragileko partaideek herritarrei gonbidatuta daudela jakinarazi nahi diete.

# Emaitza onak lortu zituzten Mintioeta Atietismo Taldeko gaztetxoek Zumarragako eta Soraluzeko krosetan

## SAILKAPENAK

■ ALEBIN NESKAK
27. Zitoritz Urain

• ALEBIN MUTILAK
4. Unai cabo
8. Adur Juaristi
79. Lander Aspiazu
85. Bingen Esturo

INFANTIL NESKAK
12. Dorleta Aranberri
17. Nerea Zubiaurre
24. Lara Urain
37. saioa de Pedro
39. Maider Oñederra

INFANTIL MUTILAK
6. Aitor Arrillaga
13. Ibai Azkoitia
16, Xabier Mujika
43. losu Tellabide
44.1tiigo Agirregomezkorta
54. Alberto Fernandez

- B URTERA ARTEKO MUTILAK:
1. Borja Diez
4. Illart Urain

8 URTERA ARTEKO NESKAK:
1. Naia Menbrillera
3. Jaione Maguregi

■ 9 eta 10 URTEKO MUTILAK:
1. Unai cabo
2. Aitor Arrese

I I9 eta 10 URTEKO NESKAK:
4. Nahia Abad

• 11 eta 14 URTE ARTEKO MUTILAK:
1. Aitor Arrillaga
2. Antton Alberdi

11 eta 14 URTE ARTEKO NESKAK:
1. Lara Urain
3. Dorleta Aranbarri

15 eta 17 URTE ARTEKO MUTILAK:
1. Jose Jurado
4. Ion Mekolalde

*Joan den abenduaren 3an Mintxeta Atletismo Taldeko 15 neska-mutilek Goierriko IV. Krosean hartu zuten parte Zumarragako Legazpia auzoan izandako lasterketan. Bestalde, abenduaren 10ean Soraluzen XIX. Jesus Atxa Memorialean Mintxetako 33 otletak hartu zuten parte emaitza onak lortuz gainera. Datorren hilaren I7an Egonda-Mintxeto taldeko Benjaminak Muskizera joango dira eta infantil eta kadeteek, berriz, Azpeitian izango dute zita.*




*Mintxeta Attetismo Taldeko kideak Soraluzeko krosaren ostean.*

# Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek emaitza 1111lidifidit dituzte Arrasateko XIII. Akordeoi jaialdian



*Inazio Bereziartua Musika Eskolako 9 ikaslek hartu zuten parte Arrasateko XIIL Akordeoi Jaildian pasa den abenduaren 6an. Eta ez parte hartu bakarrik, baita emaitza apartak eskuratu ere.*

## Sariaic

### Hastapena A MAILA
Urrezko domina eta diploma
Ane Elorzak ........................... 9 urte
Maitane Huidrobok.............. 11 urte
Esther Gonzalez ..................... 9 urte
Amaia Vegas......................... 10 urte

### Ganbara Musika B MAILA
(Akordeoia)
Zilarra eta diploma
Laura Agirregomezkorta
eta Alazne Uranga ............... 13 urte
Maitane Uranga
eta Laura Vegas...................... 12 urte

### Hastapena B MAILA Zilarra eta diploma
Ainhoa Zapata................................................................................. 12 urte

Kili BARREN

2000ko abenduaren 15a/VIIf urlea/69 zkia

# Jokin Urain euskal presoari omenaldia

Urtarrilaren 10ean gartzelaratu zuteneko 15, urteurrena beteko da

Alkorta" gartzelaratu zuteneko urteurrena beteko dela-eta Lasturko eta Mendaroko bere lagunek omenaldi bat egitea pentsatu dute eta hori antolatzeko asrrtatan hainbat bilera egin dituzte dagoeneko. Omenaldia Kultur Etxean egingo da urtarrilaren 12an eta gaueko 21:30ean emango zaio hasiera. Bertan preso ohi bat eta abokatu bat ere izango dira. Hurrengo egunean, urtarrilak 13, arratsaldeko 20:30ean gizakatea egingo da Mendaron zehar. Ondoren, frontolan ekitaldi politikoa eta bertsolariak, abeslariak, dantzariak eta txalaparta ere ez dira faltako.



Jokin Urainek hainbat Iiburu plazaratu ditu, hala nola "Adlotse" izenburua duena edota aurten argitaratu duen "Gatibu jaio nintzen". Maila handiko bertso papel idazlea ere bada, hor dugu esaterako, aurreko urteka Mendaroko "Txirristaka Bertso Paper Lehiaketa"n jaso zuen bigarren saria.

# Aitor Etxeberrilia, pintura lehiaketako irabazlea Donostian

Nazioarteko pintura leihaketan 2. saria eskuratu zuen



Aitor Etxeberria margolari mendarotarrak pintura lehiaketa bat irabazi berri du. Lehiaketa pasa den hilabetean, azaroaren bukaeran, egin zen Donostian, Arrasaten eta Ordizian. Aitor Donostiara joan zen bere lana bertan burutu eta aurkeztera. Hiru maila zeuden: 13 urtera artekoa, 14-18 urte bitartekoa eta helduena. Guztira 3000 partaide inguru aurkeztu ziren lehiaketan. Gaia, "Ura, zaindu eta maitatzeko bizia" izan zen. Mendarotar honek sari ugari irabazi ditu, azkena Nazioarteko Pintura Lehiaketako bigarren saria izan da.

## • Arno Izarraitz sos

Uda partean sortu zen plataforma da Arno-Izarraitz SOS. Bere helburua Arno eta Izarraitz inguruetako ekosistemak berandu baino lehen ezagutaraztea eta babestea da. Mendaron "In Leike"ko mendi taldearen eskutik Arno-Izarraitz SOSek diapositiba emanaldia eskainika du, jadanik Mutriku eta Zarautzen egin den bezala. Diapositiba emanaldia Kultur Etxean izango da abenduko azken egunetan (oraindik zehazteko). Bide batez Arno-Izarraitz SOSek edozein erako laguntzak eta atxikimenduak jasotzeko prest dagoela adierazi nahi du.

## ■ Gabon lekuak

Gabanetako oporretan gabon lekuak antolatzeko asmoa dute `in leike'k eta begirale taldeak. Gabon leku hau abenduaren 26tik 29ra bitartean izango litzateke. Bertara lautik 11 urtera arteko haurrak joan daitezke eta ordutegia goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00ak arte izango da. Parte hartu nahi duen edozeinek izena Ikastolan ernatea baino ez dauka. Iaz bezala, aurten ere, lau egun horietako batean, Eibarko txiki parkera joateko asmoa dago.

KirthaRen Kolaboratzaileak: Joseba Eixeberria , Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# KONTSEZIO AZOKA

NTSEZI



***Aurten ere abenduarekin batera, azken urteotan ohitura bthurtu den bezala, Kontzesio azokaren edizio berri bat egin da Gotiatt Frontotan eta bere inguruetan. 6. aldia izan da aurtengoa. 1995an Debemenek eta Mendaroko Udalak inguruetako nekazaritza nahiz baserri munduari eta honekin erfazionatutako lanbideei bultzada eman eta merkatura ateak irekitzea erabaki zuen. Azokarena ez da gaurko kontua Euskal***

**Juan Loyola,**
Lasalde baserrikoa



Mendaron asko saltzen dou, herriku ak geralako, baina Mutrikura-edo juten geranian, han beti gera erbesteko eta askoz gutxiao saltzen dou.

Ondo saldu ohi dogu hemen, nahiz eta jende gehixena erosten baino, ikusmiran ibiltzen dan. Azoka gehixao ere egoten dia, baina batera eta bestera ibiltzeko jenero asko bihar da eta lan haundixa eskatzen dau. Ferixia eitxeko ohitxuria oso ona da baina asko kostatzen da.

Nik neuk, ez dakat entzuterik sekula aurrez, sei edizio hauek baino lehen, Mendaron ferixarik ein zanikan. Elgoibarko eguenetako azokia beti ezautu izan dou eta harek euki leike zerikusirikan".

**"Ez dakat entzunda ferixa honen aurretik Mendaron besterik eitxen zanikan"**

**Unai Andonegi,**
Trikitilaria



Holako egunetan ezin falta izaten dugu jaia girotu eta alaituko duen trikitilaririk. Aurtengo azokan Unai Andonegi aurkitu genuen jende artean eta azoketan trikitirako ohitura handia dagoela kontatu zigun: "Hemen inguruetako azoketan ibiltzen naiz trikitia jotzen. Mendaroko ferixan ingurukuetan baino jende gitxiao ibiltzen da. Ferixia ere txikixaua da eta ez daka Elgoibarko Gabon Zaharretako Ferixiak-eta daken entzuterik.

Sasoi batetik honuntz azokek asko galdu dabe, nahiz eta oindiokan badauden indar hori gordetzen dabenak. Trikitilari kontuan, berriz, beti ezautu izan ditxut trikitilarixak ferixetan. Gaur egunian altabozak eta biharrezkuak dia, jende asko dauan lekuan batez ere. Zuzeneko soinu eta panderua ordezkatuko dabanik ez dao, musikia beti ere dan moduan jota, askoz hobia dalako".

**"Zuzeneko soinua eta panderua ordezkatuko dabanik ez dao"**

# D AZOKAWNTSI ZIO AZOKA

***Herrian, hala ere, eta aintzinako kontu ziurrik jakin ez arren, Mendaron behintzat, aspalthan ez zen azokarik egifen eta berreskuratu egin da.Gu han izan ginen, azoka alde desberdinetatlk ikusi, begirada bat eman eta ondoren, iritziak jaso genituen: antolatzaileena, bertara joan ohi den baserritarrarena, trikitilariarena, azoka beralekin oso lotuta baitago, eta baita artisauarena ere. Guztiok bizi dute azoka mundua modu ezberdinean.***

**Jose Luis Urbieta,**
ArLisaua



Lehenengo urtian izan ezik, gainerakuetan hemen izan naiz. Beste ferixa batzuetan ere ibili naiz baina, lanbidiagatxik baino gehixao, afizioz nabil mundu honetan. Egixa esan azoketan ez dot gauza asko saltzen, boligraforen batzuk edo hola. Batzuk ikusi eta enkargau eitxen dabe. Sozidaderako, Kilimon zaharrerako ein ditxut gauza batzuk.

Intxaurra erabiltzen dot nere lanetarako, erlojuak eta kutxa haundixak eitxeko, adibidez. Erdi hutsak daozen arbolak ere bilatzen ditxut, hustu, sikatzen laga eta gero, lanari ekiten diot. Lastur aldian ibiltzen naiz holakuen bila. Tailatzen eta egur lanian ibiltzen dan jende gehixao ere badao, baina ez dia hainbeste ni bezala mendixan bilautakoekin lan eitxen dabenak".

**"Era honetako lanbidiek ez dake sasoi bateko indarrik"**

Bestelako artisauak ere baziren azokan: otarregileak, artilea lantzen dutenak... Hala ere, Jose Luisek esan zigunez "era honetako lanbidiek ez dake sasoi bateko indarrik, gaur egun ere baserrixetan erabiltzen dian produktuak izan arren, tamalez lan hauek poliki-poliki galtzen duaz, errelebo faltia dao".

**Agurtzane Etxaniz,**
DEI3EMENeko arduraduna



Mendaron azokarik ez zaualak hasi ginan antolatzen, eta aurtengua seigarren urtia da. Deba harrenian herri daneta eitxen dia azokak gau egunian. Bai Soraluzekoa, bai Mutrikukua eta hai Mendarokua berrixak dia, sei urtetik honuntz ntolatzen dianak, baina Eibar, lgoibar eta Deakua, aurrerao-tik datoz eta beste tradiziu bat dauke. Kaso honetan Mendaroko baserritxarrak urteko produktuekin gutxi etorri dia eta artisau moduan edo ganauakin etorri dia gehixao, jendia ez da animatzen. Guk barazki eta frutekin bultzatzia nahi izaten dou, baina gero eta jende gutxiao dao horretara dedikatzen dana.

**Kalitatezko produktuak baserrixetan ditxugula erakutsi nahi dogu eta ez zentro komertzial haundixetan.**

Azokak gauza bat eukitzen dabe peligrosua, urtian behiu izaten dia eta askotan kutsu folklooriko hori dauke, baina guk ez dou hori nahi. Guk kaleko .jendiak baserrixan zein lan eitxen dan ezautzia nahi dou, kalitatezko produktuak produzitzen diala. ez ditxugula baserrixak hain urruti. Kalitatezko produktuak baserrixetan ditxugula erakutsi nahi dou eta ez zentro komertzial haundixetan. Hain herri txikixak izanda, kaleko jendian eta baserritxarren arteko harremana lortu nahi dou. Egun hattek horretarako batio bihar dabe, baserritxarrak ezautzeko, eta gero jendiak hadaki urte osuan dakala horrengana juteko aukeria".



Hilabete honetako argazki zaharra 1976. urtekoa da. Erretratuan Mendaroko lau eta bost urteko haurrak agertzen dira. Mojetako eskolan atera zuten ihauterietako ospakizun batean. Hona hemen argazkian agertzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara:
Aitzol Ezenarro, Dorleta Lazarobaster, Oskar Gartzia, ezezaguna, Marta Gartzia, Aitziber Arrillaga eta Juanita Loiola.

Erdian:
Zigor Txurruka, ezezaguna, Ainhoa Urbieta, Mireia Zabala, Iñaki Gallastegi eta Asier Etxaniz.

Behean:
Jose Mari Elorza, ezezaguna, Ander Garate eta Aitziber Zulaika.

AROR PS1KOLOGIA - LOGOPEDIA
Haur eta heiduentzako
Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta
AFASIAK, DISFONIAK, DISLALIAK, DISLEXIAK, HIZMOTELTASUNA, E.L.A.
Toribio Etxeberria 10, 6 ezk. EIBAR Tel. 943 20 27 15

OIERKII IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea 20600 EIBAR

ENPRESA BABESLEA

Softlen

Analisia & Programazioa
Antonio Arrillaga,1 • Tel. 943 748 195

# SEgurtasun nEurriak IntErnEtEn

ZENTZUZ JOKATZEA DA SEGURTASUN NEURRIRIK EGOKIENA, BAITA INTERNETEN ERE. BAINA BATZUTAN ZENTZUAK ERE HUTS EGIN DUAKE ETA INTERNETEN SEGURU NABIGATZEKO HAINBAT AHOLKU EMANGO DIZKIZUEGU.

